

## **EUSKAL NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAN IKERTZAILE ETA TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2019**

### **Helburua**

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzako programan 12 bekatarako (doktoratu aurrekoak) deialdia egin du, baita teknologoak prestatzeko programan 10 bekatarako ere.

### **Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:**

Doktoratu aurrekoen laguntzen iraupena urtebetekoa izango da eta, urtetik urtera, gehienez 4 urtez luza daitezke. Teknologoentzako laguntzen iraupena bi urtekoa izango da.

**Doktoratu aurrekoen kontratuen urteko lansari gordina** 18.574,22 eurokoa izango da lehen eta bigarren urtean, 19.833,38 eurokoa hirugarren urtean eta 24.555,72 eurokoa laugarren urtean. Bestalde, onuradunek 2.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute hainbat gastutarako: doktorego matrikula, biltzarretarako asistentzia, egonaldi laburrak, etab.

Teknologoek 13.000 euro gordin jasoko dituzte urtean. Bestalde, onuradunek 1.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute hainbat gastutarako: biltzarretarako asistentzia, egonaldi laburrak, etab.

### **Lehentasunezko ikerketa arloak:**

Hautagaiek diru laguntza edozein programatan eska dezakete, eta gehienez 3 proiektu hauta ditzakete.

Hauek dira UPV/EHUk eskainitako proiektuak:

BEKA MOTA	PROIEKTUAREN IZENA	ESKATZEN DIREN TITULUAK	DESTINOKO ZENTROA:
Doktoratu aurrekoak	Nekazaritza-hondakinak aprobetxatzea nekazaritza-sektorerako bererako antioxidatzailez kargatutako nanozelulosa bakterianoako partikulen garapenean	Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Kimikako Gradua	EHU- Materialen eta teknologien GMT ikerkuntza-taldea (Donostia)
Doktoratu aurrekoak	Erlezaintzako tratamendu kimikoak gutxitzea: tratamendu ekologikoak optimizatzea eta erleen mikrobioma sustatzea	Farmaziako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua; Medikuntzako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Biokimika eta Biologia	EHU-Genomic Resources Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa)

		Molekularreko Gradua; Biomedikuntza Gradua; Bioinformatikako Gradua	
Doktoratu aurrekoak	INNUENDO genotipifikaziorako plataforma erabiltzeko gaitzea elikagaiek transmititutako gaixotasunak kontrolatzeko esparruan	Farmaziako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua; Medikuntzako Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua; Albaitaritzako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Biomedikuntzako Gradua; Bioinformatikako Gradua	EHU- Inmunologia, Microbiologia eta Parasitologia Farmazia Fakultatea (Gasteiz)
Teknologoak	Esneingintzako aukera bioosasungarriak garatzea	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Marketineko Gradua	EHU- Lactiker Farmazia Fakultatea (Gasteiz)

### ***Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:***

- Europar Batasuneko herritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.
- EAEko udalerriren batean errolatuta egotea 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez.
- Deialdiko I. eranskinean zehazten diren titulazioetako bat edukitzea.
- Doktoratu aurreko beketako bat eskuratu nahi izanez gero, doktorego programa batean onartua izateko baldintzak izatea.
- Titulu hori eskuratzeko ikasketak 2013ko ekainean edo beranduago amaitu izana.
- Teknologoentzako laguntzen kasuan, nekazaritza, arrantza eta elikadura gaietan eskumena duen sailarengandik antzeko ezaugarriak dituen beste bat jaso ez izana.
- Zehapen administratiborik edo penalik ez izatea.

### ***Eskaerak aurkezteko epea eta modua:***

Hautagaiak berak bete beharko du eskaera II. eranskineko ereduaren arabera, eta **2018ko abenduaren 3 arte** izango du aurkezteko aukera deialdiko laugarren artikuluan zehaztutako bideetako bat erabiliz. **UPV/EHUren erregistro bulegoak ez dira baliozkoak izango deialdi honetako eskaerak aurkezteko.**

**UPV/EHUko TRAMITEA:**

Behin eskaera erregistratuta, **UPV/EHUn eskainitako proiektuetako bat eskatzen duten** hautagaiek, alta tramitea errazteko laguntza emanez gero, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute PDF formatuan helbide honetara:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. Proiektuen hautaketa justifikatzeko memoria
- c. Curriculum vitae
- d. NANaren fotokopia

**Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):**

**Aurrez aurrekoa:**

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza  
Donostia, 1 – 3. solairua.  
01010 - Gasteiz

**Telefono bidez**

Javier Latorre Guinea  
Telefonoa: 945 018251  
Faxa: 945 019701  
Helbide elektronikoa: [j-latorre@euskadi.eus](mailto:j-latorre@euskadi.eus)

**Informazio gehiago:**

[http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru\\_laguntza/2018/ikertzaile-eta-teknologo-gazteentzako-bekak/s68-contay/eu/](http://www.zuzenean.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/ikertzaile-eta-teknologo-gazteentzako-bekak/s68-contay/eu/)